ERRAMU DOMEKEA
«B» eredua

Eleizpean

V/. Hosanna Dabiden semeari!



Oharra

Senideok: Garizumeak Jaunaren Misterioaren atarian jarri gaitu: Jesukristoren Nekaldi, Heriotza, Biztuera, Zeruratze misterioa. Hori beteteko sartu zan Jesus Jerusalemeko bere uri santuan. Orain egingo doguna sarrera ha gogoratzea ta barritzea da; eta Jesusi kurutzeraino jarraitzeko gogoa barriztatuko dogu.

Abadeak

Egin daigun otoitz

Oi Jainko, indartu egizu Zugan uste on dabenen fedea

eta entzun bihotz onez gure otoitzak:
gaur Kristo garailea erramu-adarrakaz goratzen dogunok,
beragaz bat eginik, egintza onen frutuak emon daiguzan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

B urtean

† Jesukristoren ebanjelioa san Markosen liburutik (11, 1-10)

Jerusalemera hurreratu ziranean, Oliamendi ondoko Betfage eta Betania herritxuetara helduta, ikasleetariko bi bialdu zituan Jesusek, esanez: «Zoaze aurreko herritxu horretara; sartu orduko, astakume bat aurkituko dozue lotuta, gainean oraindik inor jarri ez jakona; askatu eta ekarri. Eta nonork zer darabilzuen esaten badeutsue, erantzun: "Jaunak behar dau; baina behingoan bihurtuko dau bertora"».

Joan ziran, bada, eta han aurkitu eben astakumea ate ondoan lotuta, kanpotik kalean, eta askatzen hasi ziran. Bertan egozanetariko batzuk esan eutsien: «Zer darabilzue astakumea askatzen?» Jesusek esana adierazorik, hareek astakumea eroaten itzi eutsien.

Jesusi eroan eutsoen, eta euren jantziak astakumeari bizkarrean ipini eutsoezan, eta Jesus gainean jarri zan. Askok euren soinekoak zabaldu zituen bidean; beste batzuk, barriz, landetan ebagitako abarrak. Aurretik eta ondotik joiazenek, hauxe inoen oihuka:

«Hosanna!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!
Bedeinkatua datorren erreinua, gure aita Daviden erreinua!
Hosanna Goi-goikoari!»

Jaunak esana

Oharra

Jesus goratu eban jendetzearen antzera, lagundu deiogun orain Jaunari pozez kantari.

Sarrera-abestia

Dabid erregearen semea dogu Jesus: **Hosanna!**
Jerusalemen sartzean danok gorets daigun: **Hosanna!**
Aintza ta goralpena *zuri, Jesus, Jauna!*
Hosanna! Hosanna! Hosanna!

Hosanna! Zeruen goreenetan!

Jerusalenen sartuz agurtu dau Uriak: **Hosanna!**
Abarrak eskuetan, nagusi ta txikiak: **Hosanna!**
Aintza ta goralpena *zuri, Jesus, Jauna!*

Hosanna! Hosanna! Hosanna!
Hosanna! Zeruen goreenetan!

Agintariak bildurrez, xumeenak pozez: **Hosanna!**
Goratzen dabe Jesus euren Salbatzaile lez: **Hosanna!**
Aintza ta goralpena *zuri, Jesus, Jauna!*

Hosanna! Hosanna! Hosanna!
Hosanna! Zeruen goreenetan!



Behin elizan sartuta...



(Eta otoitza esanez hasten da Mezea)

Egin daigun otoitz

Jainko ahalguztidun betikoa,
gizon-emakume guztiei apaltasun-bidea erakusteko,
gure Salbatzailea, giza haragia harturik,
kurutzean hiltzea nahi izan zenduan;
egizu, arren, hartu daiguzala gogoan
beraren nekaldiko irakaspenak,
haren biztueran parte izan daigun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Irakurgaia 1

Ez deutset aurpegia alboratu irainei,
eta badakit ez nazala lotsagarri izango.

Isaias Profetearen liburutik (Is 50, 4-7)

Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau,
bihotz-jausiei adore-hitza emoteko.
Goizero deust belarria erneazoten,
ikasle onak lez entzun dagidan.
Jainko Jaunak belarria edegi deust,
eta nik ez deutsat aurka egin, ez atzera jo.
Lepoa eskeini neutsen jotzen ninduenei,
matrailak, bizarretik tiraka ebilkidazanei.
Ez neutsen aurpegia aldendu irainei eta txistuei.
Jauna dot laguntzaile;
horregaitik, ez naz kikildu;
horregaitik gogortu dot aurpegia, harria lez,
badakit-eta ez nazana lotsagarri geldituko.

Jaunak esana

Salmoa (Sal 21, 8-9. 17-18a. 19-20. 23-24)

R/. Ene Jainko, ene Jainko, zergaitik itzi nozu eskutik?



Ikusten nabenek burla egiten deuste,
ezpanak okertuz, buruari eraginez:
«Jaunagana jo dau, libratu dagiala!
Salbatu dagiala, hainbeste maite badau». R/.

Txakur-taldeak nau inguratzen,
gaizkile-multzoak erdian hartzen.
Esku-oinak zulatu deustez,
hazur guztiak zenbatu leikedaz. R/.

Nire jantziak banatzen dabez,
nire soinekoa zotz egiten.
Baina Zu, Jauna, ez egon urrun!
Ene indar, zatoz laster niri laguntzera. R/.

Iragarriko deutset zure izena neure senideei,
goratuko zaitut batzarraren erdian.
Goratu egizue Jauna, begirune deutsazuenok;
ospatu egizue, Jakoben ondorengo guztiok,
izan haren bildur, Israelen seme-alabok. R/.

Irakurgaia 2

Apaldu egin eban bere burua;
horregaitik, Jainkoak goratu egin eban.

San Paulo Apostoluak Filipostarrei egindako gutunetik (Flp 2, 6-11)

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik,
ez eutson gogor eutsi Jainkozko bere mailari;
bestela baino, egokion aintza itzi
eta esklabo-izaera hartu eban, gizakien antzeko eginez.
Eta gizaki huts modura agertuz, apaldu egin eban bere burua,
menpeko eginez heriotzaraino, kurutzean hiltzeraino.

Horregaitik, danen gainetik goratu eban Jainkoak
eta izen guztietan bikainena emon eutson,
Jesusen izenaren omenez danen belaunak makurtu daitezan,
zeruan, lurrean eta lurpean,
eta mihin guztiek autortu dagien Jesu Kristo dala Jauna,
Jainko Aitaren aintzarako.

Jaunak esana

Ebanjelio aurreko txatala

Kristo zu ta nigaitik / gu danokaitik
Jainko izateaz hustu egin zan / menpeko eginik.
Jaungoikoak horregaitik, / goratuz danen gainetik,
izen guztien gaineko / izena emon deutso.

† *Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Markosen liburutik* (Mk 15, 1-39)

Gura al dozue juduen erregea askatzea?

K Eguna argitu baizen laster, abade buruak, herriko zaharrak eta lege-maisuak batu egin ziran, Batzar Nagusi osoa, eta, erabagia hartu ostean, Jesus loturik hartu eta Pilatori eskura emon eutsoen. Pilatok itaundu eutson:

S «Judeguen erregea zara Zu?»

K Jesusek erantzun eutson:

✠ «Zeuk dinozu».

K Abadeburuak salatu eta salatu ebiltzan haren aurka. Pilatok itaundu eutson barriro:

S «Ez ete dozu ezer erantzun behar? Begira zenbat salakuntza egiten daben zure aurka».

K Baina Jesusek ez eutson gehiago erantzun, eta harrituta egoan Pilato. Pazko-jai guztietan preso bat askatzen eban Pilatok, herriak eskatzen ebana. Bazan kartzelan Barrabas izeneko bat, matxinadan giza hilketa egindakoa beste matxinatuekin batera. Igon eban jenteak Pilatoren jauregira eta ohitura ebana emoteko eskatzen hasi ziran. Pilatok erantzun eutsen:

S «Gura dozue judeguen erregea askatzea?»

K Ze baekian abadeburuek ikusi ezinez emon eutsoela Jesus. Baina abadeburuek jentea berotu egin eben, Barrabas askatzeko eskatu egian. Pilatok barriro itaundu eutsen:

S «Eta zer egin behar dot judeguen errege esaten deutsazuen horregaz?»

K Hareek, orduan, deadarka:

S «Josi kurutzean!»

K Eta Pilatok:

S «Zer oker egin dau, bada?»

K Hareek, gero eta oihu handiagoz:

S «Josi kurutzean!»

K Pilatok, orduan, jenteari atsegin emoteagaitik, Barrabas askatu eutsen eta Jesus, zigortuazo ostean, hareei eskura emon eutsen, kurutzean josi egien.

Arantzaz egindako koroa ipini eutsoen buruan.

Gudariek Gobernariaren jauregi barrura eroan eben Jesus eta gudaritalde osoa batu eben. Purpurazko soinekoa ipini eutsoen aldean eta arantzaz egindako koroa buruan. Eta agurka hasi jakozan:

S «Agur, judeguen erregea!»

K Kainaberaz buruan jotzen eben eta txistua botatzen eutsoen eta, belaunikaturik, aurrean ahuspez jartzen jakozan. Haren lepotik nahiko barre egin ostean, purpurazko jantzia kendu eta bere soinekoak jantzi eutsoezan. Gero, atara eta kurutzean josteko eroan eben.

Golgota izeneko lekura eroan eben Jesus.

Solotik etxerakoan handik joian bat, Simon Zirenekoa, Alexandro eta Ruforen aita, kurutzea eroatera behartu eben. Golgota izeneko lekura eroan eben Jesus (Golgota hitzak «Buru-hazur» esan gura dau).

Gaizkileen artekotzat jo eben.

Mirraz nahastautako ardaoa eskeini eutsoen, baina ez eban hartu. Kurutzean josi eben, eta gudariek haren jantziak banatu egin zituen, zer norentzat zotz eginez. Bederatziak ziran kurutzean josi ebenean. Holan inoan kondenazinoaren arrazoia adierazten eban idazkunak: JUDEGUEN ERREGEA. Jesusegaz batera lapur bi josi zituen kurutzean, bata eskuman eta bestea ezkerrean. Holan bete zan Liburu Santuak dinoana: «Gaizkileen artekotzat jo eben».

Besteak salbatu jozak,
eta bere burua ezin salbatu.

Handik igarotzen zirenek irain egiten eutsoen Jesusi, buruari eraginez eta esanez:

S «Hara, santutegia desegin eta hiru egunean barriro eregiko ei ebana! Salbatu egik heure burua! Jatsi hadi kurutzetik!»

K Era berean, abadeburuek be, lege-maisuakaz batera, burla egiten eutsoen, esanez:

S «Besteak salbatu jozak, eta bere burua ezin salbatu. Mesias eta Israelgo erregea ei dok; jatsi daitela orain kurutzetik, ikusi eta sinistu dagigun».

K Harekin kurutzean josiak egozanek ere irain egiten eutsoen.

Jesusek, deadar handia eginez,
azken arnasa emon eban.

Eguerdian, ilundu egin eban lurbira osoan hirurak arte. Hiruretan, Jesusek oihu handiz esan eban:

✠ «Eloi, Eloi, lema sabaktani»,

K hau da:

✠ «Ene Jainko, ene Jainko, zergaitik itzi nozu?»

K Hau entzutean, han egozan batzuek esan eben:

S «Eliasi deika jabilk».

K Orduan batek, lasterka joan, belakia ozpinetan busti eta, kainabera bati ertzean ipiniz, edatera emon eutson, esanez:

S «Egon, ea datorkion Elias, kurutzetik jaistera».

K Baina Jesusek, deadar handia eginez, azken arnasa emon eban.

Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egingo da.

Orduan, santutegiko oihala erdi-erditik urratu zan, goitik beheraino. Aurrean egoan erromatar ehuntariak, zelan hil zan ikustean, esan eban:

S «Benetan, Jainkoaren Semea zan gizon hau».

Jaunak esana.

Oparien gaineko otoitza

Jauna, zure Semearen nekaldiari esker
betorkigu laster zure parkamena;
eta, zure bihotz onberaz, emoiguzu,
haren sakrifizio bakarrari esker, zeure errukia,
geure ekintzakaitik merezidu ez badogu ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, pekatu bakoa izanik,
pekatariakaitik onartu eban nekaldia
eta, erru bakoa izan arren,
gaizkile bezala kondenau eben.
Bere heriotzaz garbitu ditu gure pekatuak
eta, bere biztueraz, salbamena lortu deusku.

Horregaitik, geuk ere, aingeru guztiekin batera,
goresten zaitugu, poz betean [esanez] kantari:

SANTU, SANTU, SANTUA...

II. EUKARISTI OTOITZA

Santu zara, bai, Jauna,
eta santutasun guztiaren iturri;
egizuz, bada, santu ogi-ardao honeek,
zeure Espiritua isuriz,
Jesu Kristo gure Jaunaren Gorputz eta ✠ Odol
egin daitezan guretzat.
Berak, saldu ebenean, (gau honetan, hain zuzen),
eta bere gogoz kurutzera joiala,
ogia hartu eta, eskerrak emonez,
zatitu eban eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

**HARTU EIZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE GORPUTZA DA-ETA,
ZUENTZAT EMONGO DANA.**

Era berean, afalondoan,
kaliza harturik,
barriz ere eskerrak emonez,
bere ikasleei emon eutsen, esanez:

**HARTU EIZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE ODOLAREN KALIZA DA-ETA,
ITUN BARRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.
EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.**

Hau da sinismenaren misterioa.

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!

Horregaitik, Jauna,
zure Semearen heriotza eta biztuera gogoratuz,
biziaren ogia eta salbamenaren kaliza
eskeintzen deutsuguz,
Zuri eskerrak emonez,
altaran zeure zerbitzari onartu gaituzulako.

Eta apalik eskatzen deutsugu,
Kristoren Gorputza eta Odola hartzen ditugunok
Espiritu Santuak bat egin gaizala.

Izan gogoan, Jauna,
mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea;
eroaizu maitasun osora,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
eta eleiz gizon guztiekin batean.
Era berean, izan gogoan, Jauna,
bizteko itxaropenean joan diran gure senideak
eta hildako guztiak ere;
hartu egizuz zeure aurpegiaren argitan.

Erruki zakiguz, arren,
guk guztiok betiko bizitza jaritsi daigun,
Jainkoaren Ama Maria Birjina dohatsuarekin,
haren senar Jose santuarekin,
Pedro eta beste Apostolu santuekin
eta, gizaldi guztietan,
zure adiskide izan diran santuekin;
eurekin batera goratu zaiguzan,
Jesu Kristo zure Semearen bitartez.

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Jainko Aita ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.
Amen.

† Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz
bildur barik esan dagigun.

GURE AITA zeruetan zarana
santu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia
zeruan bezela lurrean ere.
Emoiguzu gaur egun honetako ogia;
parkatu gure zorrak
geuk ere gure zordunei parkatzen deutsegun ezkero;
ez eiguzu itzi tentazinoan jausten,
baina atara gagizuz gatxetik.

† Atara gagizuz, Jauna, gatx guztietatik, emoiguzu bakea gure egunotan, zure errukiari esker pekatutik garbi bizi izan gaitezan eta estualdietan sendo; betiko zorionaren itxaropenean Jesukristo gure Salbatzailea noiz etorriko dan zain gagozela.

—Zeurea dozu erregetza; zeureak ospe ta indarra orain eta beti.

† Jesukristo gure Jauna, zeuk esana da apostoluei ‘bakea izten deutsuet, neure bakea emoten’; begira zure Eleizearen sinismenari eta ez gure pekatuei, eta zeure gogoa danez, emoiozu Eleizeari bakea, emon batasuna, errege bizi zara-ta, gizaldi eta gizaldietan. —Amen.
† Jaunaren bakea beti zuekin.
—Eta zure espirituarekin.

† Emon deiogun bakea alkarri.

Jaungoikoaren Bildotsa,
zeuk kentzen dozu munduko pekatua: Erruki, Jauna.
… emoiguzu bakea.

Jaunartzea

† Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko pekatua kentzen dauana: zoriontsuak honen mahaira deituak:

—Jauna, ni ez naz inor zu nire etxean sartzeko,
baina esaizu hitz bat eta osatuko naz.

Jaunartzerako deia

Jerusalemen aintza artean sartu dan Jesusen ikasle ta jarraitzaile gara geu ere. Baina badakigu zer egin eutsoen orduan «Ho-

sanna!»-ka laguntzen eutsoen guztiek: bertan behera itzi eben. Ez gaitezan izan euren antzeko. Hurreratu gaitezan Jesusengana, eta berak besarkatu gaizala estu-estu, bere antzera geuk ere geure bizia Jainkoari eskeini deiogun, gure maiteen alde emonaz.

Jaunartze ondorengo otoitza

Zure misterio santuaz indarbarriturik
otoizka gaituzu, Jauna:
zure Semearen heriotzari esker,
sinisten dogun bizi betea itxarotea emon deuskuzun lez,
emoiguzu, haren biztueraz, bizi hori eskuratzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

OHARRAK

Onespena

† Jauna zuekin
—Eta zure espirituarekin.
† Bedeinka zaizela Jainko errukitsuak: Aitak eta Semeak † eta Espiritu Santuak.
—Amen.
† Zoaze Jaunaren bakean
—Eskerrak Jainkoari.